



AGINDUA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA, EUSKADIKO TURISMO-GIDARITZAKO JARDUERARI BURUZKO MARTXOAREN 5EKO 26/2024 DEKRETUA ALDATZEKO XX/XXXX DEKRETU-PROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEN DUENA

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikularen 1. apartatuak honako hau xedatzen du: «Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik».

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2026ko ekainaren 11ko Aginduaren bidez, Euskadiko Turismoaren Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hastea erabaki zen.

Horrenbestez, dekretu-proiektuaren testua egin ondoren, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, alde aurreko onarpena eman behar zaio dekretu-proiektuari, dagozkion entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikularen 2. apartatua aplikatuz, arau-proiektuaren testu elebiduna eransteaz gain, arau-eraginari buruzko memoriaren 3. apartatuan eta 5. apartatuan aurreikusitako dokumentuak erantsi dira.

Azaldutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. - Aldez aurreko onarpena ematea Euskadiko turismo-gidariaren jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 Dekretua aldatzen duen dekretu-proiektuaren testuari (eranskin gisa erantsi da).

BIGARRENA. - Aldez aurreko onarpenaren agindu hau eta arau-proiektuaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzea.

HIRUGARRENA. - Agintzea Euskadiko turismo-gidariaren jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 Dekretua aldatzen duen dekretu-proiektuaren prozedura izapidetzen jarraitzeko, hasierako aginduan eta ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideen arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den egunean.

JAVIER HURTADO DOMINGUEZ

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko saliburua



ERANSKINA

XXXX AREN XX (E) KO DEKRETUA, EUSKADIKO TURISMO-GIDARIEN JARDUERARI BURUZKO MARTXOAREN 5EKO 26/2024 DEKRETUA ALDATZEN DUENA

ZIOEN AZALPENA

Martxoaren 5eko 26/2024 Dekretua onartu arte, EAEko turismo-gidariaren jarduerak ez zuen berariazko erregulaziorik, sartzeko baldintzak, jarduketa-eremua eta lanbide-jardunari lotutako betebeharrak definitzen zituenik.

Martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuak ezarritakoaren arabera, turismo-gidariaren jarduera aske emateko zerbitzua da, salbu eta Euskal Kultura Ondarearen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan edo Oinarrizko Babesa duten Kultura Ondasunen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan inskribatutako ondasun higiezinaren barruan egiten bada; horretarako, beharrezkoa izango da dekretu honetan ezarritako gaikuntza izatea, zirkulazio libreko bide edo espazio publikoak turismo-gidariaren zerbitzuak emateko espazio libreak direla zehaztuz.

Dekretu hori indarrean jartzeak aurrerapen nabarmena ekarri zuen turismo-gidariaren jardueraren antolamenduan, gaikuntza profesionaleko sistema bat, baliozko titulazio eta prestakuntzen katalogo bat eta jardun egokia ziurtatzeko betebeharren multzo bat ezarri baitzuten. Esparru horri esker, sektoreari egitura juridiko argia eman zitzaion, jardunean zeuden profesionalen egokitzapena erraztu zuen eta turismo-gidariaren lana ikusarazten eta aitortzen lagundu zuen.

Turismo-gidariaren jardueran aritzeko zuzeneko gaikuntzaren araubidea indarrean jarri zenetik metatutako esperientziak agerian utzi du muga jakin batzuk dituela euskal turismo-sektoreak eskatzen dituen kalitate- eta profesionaltasun-estandarrak erabat bermatzeko gaitasunean.

Eredu horrek, bere garaian, administrazio-kargak sinplifikatzeko borondateari erantzun zion, baina denborak agerian utzi du akreditazio-, egiaztapen- eta kontrol-mekanismoak indartu behar direla, jarduera hori egiten duten pertsonen kalitatezko zerbitzua eskaintzeko gaikuntza egokia eta behar diren gaitasunak dituztela ziurtatzeko.

Turismo-gidariaren lanak funtsezko zeregina betetzen du kultura-ondarearen interpretazioan eta turismo-esperientziaren kalitatean, eta, testuinguru horretan, ezinbestekoa da ziurtatzea lanbide-gaikuntzarako sarbidea irizpide objektiboetan, uniformeetan eta guztiz bermatutakoetan oinarritzen dela. Onartutako prestakuntza-profilen aniztasunak, baliotsua bada ere, tresna gehigarriak behar ditu, pertsona gaitu guztiek jarduera behar bezala egiteko behar diren ezagutzak eta trebetasunak dituztela egiaztatzeko. Hori dela eta, egokitzen jo da indarrean dagoen arau-esparrua berrikustea eta eguneratzea, eskatzen diren baldintzak betetzen direla eta modu zorrotzago eta eraginkorragoan egiaztatzea ahalbidetuko duen gaikuntza-sistema bat txertatuz.

Xede horrekin, berrikuntza honek ezagutzak eta gaitasunak egiaztatzeko sistema egituratu bat hartzen du barne, izangaien gaitasun-maila objektiboki egiaztatzeko aukera ematen duena. Sistema horrek bi modulu bereizi ditu, prestakuntza teknikoa eta profesionala baloratzen eta Euskadiko kultura-, natura- eta lurralde-ondarea ezagutzera bideratuak, hurrenez hurren.

Azkenik, gaikuntza galtzeko kasuak zabaldu eta zehaztu egiten dira, eta jarduerari atxikitako betebeharrak betetzea edo egokitasun profesionala arriskuan jartzen duten egoeren aurrean



administrazioak esku hartzeko arrazoiak jasotzen dira. Eguneratze hori gaikuntza-sistema berriaren beharrezko osagarri gisa hartzen da, eta ziurtatzen da, ezagutzak eta gaitasunak frogatuz ez ezik, hura ematea justifikatu zuten baldintzek irauten duten neurrian ere mantentzen dela.

Ondorioak galtzeko araubidea modu proportzionatuan eta bermatzailean egituratzen da, eta honako hauek bereizten dira: titularraren borondatearen ondoriozko kasuak, beste lurralde batzuetatik datozen gaikuntzen kasuan jarduera-aldia igarotzearekin lotutakoak, eta arrazoi objektiboek erantzuten dietenak, hala nola zehapen irmoak ezartzea, gerora sortutako inguruabarrak egotea edo legez aurreikusitako beste edozein kausa.

Aldaketa horren helburua da administrazio-sinplifikazioa orekatzea zerbitzuaren kalitate-berme ezinbestekoarekin, erabiltzaileen konfiantza indartuz. Horrekin, eredu sendoago baterantz egiten da aurrera, turismoaren egungo beharrekin eta Euskadiko turismo-politikaren inspirazio-iturri diren bikaintasun- eta jasangarritasun-helburu estrategikoekin koherentea izango den eredu baterantz.

Horrenbestez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak XXXXko XXaren XX(e)an egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua. Euskadiko turismo-gidariaren jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 DEKRETUAREN 4. artikulua aldatzea.

Aldatu egingo da Euskadiko turismo-gidariaren jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren 4. artikulua, eta honako idazkera izango du:

4. artikulua. Gaikuntza

1.- Dekretu honen 2.1 artikuluan aurreikusitako ondasun higiezinaren barruan turismo-gidariaren lanbide-jarduera gauzatzeko, turismo-gidari izateko gaikuntza lortu beharko da. Horretarako, turismo-arloan eskumena duen sailak helburu horrekin deitzen dituen probak gainditu beharko dira, artikulua honen 5. atalean ezarritako salbuespenekin.

2. – Turismo-arloan eskumena duen sailburuaren agindu baten bidez egingo da Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-gidariaren lanbide-jardueran aritzeko gaikuntza lortzeko proben deialdia.

3.- Deialdi Aginduak oinarri arautzaileak jasoko ditu. Oinarri horiek, gutxienez, alderdi hauek jaso beharko dituzte

a) Probetara sartzeko baldintzak.

b) Eskaera egiteko epea eta modua, eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

c) Eskabide-eredu normalizatua.

d) Probak egiteko modua.

e) Proben xede diren moduluen edukia, dekretu honen 6. artikuluan ezarritakora egokituko dena.



f) Eskatzaileei probak egiteko eguna, tokia eta ordua jakinarazteko edo komunikatzeko sistema.

4.– Gaikuntzak bere jardueratik eratorritako eskubide eta betebeharrak ezartzen dizkio turismo-gidariari, dekretu honetan adierazitakoaren arabera.

5.- Jarduera hauetarako ez da beharko inolako gaikuntzarik:

a) Irakaskuntzako langile profesionalek ikasleekin egiten dituzten eskola-bisitaldiak.

b) Administrazio publikoetako langileek noizean behin egiten dituzten bisitaldi instituzionalak.

c) Museoetako, liburutegietako eta euskal kultura-ondareko beste entitate batzuetako langileek jendeari informazioa emateko egiten dituzten jarduerak, beren lanpostuaren eginkizunen barruan.

d) Foru-aldundietan kultura-ondarearen eskumena duten departamentuek edo udalek kultura-ondareari buruzko informazioa emateko eta zabaltzeko edo haren balioa nabarmentzeko egiten dituzten jarduerak.

e) ITOURBASK Turismo Bulegoen Euskal Sareko turismo-informazioko bulego eta puntuetako langileek ematen dituzten informazio-zerbitzuak, baldin eta euskal kultura-ondareko ondasunen barruan ematen badira.

Bigarren artikulua. Euskadiko turismo-gidariaren jarduerari buruzko Martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren 5. artikulua aldatzea.

Aldatu egingo da Euskadiko turismo-gidarien jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren 5. artikulua, eta honako idazkera izango du:

5. artikulua. Euskadiko turismo-gidarien gaikuntza-probak egiteko baldintzak.

1.– Turismo-gidariaren gaikuntza lortu nahi duten pertsona fisikoek eskakizun orokor hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea edo Europar Batasuneko beste estatu kide batekoa, Europako Esparru Ekonomikokoa edo pertsonen zirkulazio askea aplikatzen zaien estatuetakoa izatea. Hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten pertsonak ere sartu ahal izango dira, baldin eta Espainian bizitzeko eta ordaindutako jarduera bat egiteko indarreko baimena badute.

b) Adin nagusikoa izatea.

2.– Gaikuntza lortzeko, interesdunek egiaztatu beharko dute kapitulu honetako 2. ataleko lanbide-gaitasunerako eskakizunen bat betetzen dutela, bai eta 3. atalean ezarritako hizkuntza-gaitasuna ere.

Hirugarren artikulua. Euskadiko turismo-gidariaren jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 DEKRETUAREN 6. artikulua aldatzea.

Aldatu egingo da Euskadiko turismo-gidarien jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren 6. artikulua, eta honako idazkera izango du:

6. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-gidariaren lanbide-jardueran aritzeko gaikuntza-probak



1.- Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-gidariaren lanbide-jardueran aritzeko gaikuntza-proben helburua izangaiak badituela lanbidearen berezko funtzioak behar bezala betetzeko behar diren ezagutzak, gaitasunak eta konpetentziak egiaztatzea da, indarrean dagoen turismo-araudian ezarritakoaren arabera.

2.- Probek bi modulu bereizi izango dituzte, nahitaezkoak izango dira, eta honako gai hauei buruzkoak izango dira:

a) I. moduluan, turismo-gidari gisa jarduteko behar den gaikuntza teknikoa eta profesionala ebaluatuko da: taldeen kudeaketa eta laguntza, EAEko turismo-merkatuaren funtzionamendua, autonomia erkidegoko turismo-araudia eta gidarien lanbide-betebeharrak.

b) II. moduluak Euskadiko kultura-, natura- eta lurralde-ondarearen ezagutza ebaluatuko du, eta haren historiaren, kultura- eta etnografia-ondarearen, lurraldeko geografia fisikoaren eta giza geografiaren, naturagune babestu nagusien eta toponimia ofizialaren ikuspegi orokorra emango du, bai eta euskarari lotutako kultura-elementuak ere.

3.- Bi modulu horiek gainditzea ezinbesteko baldintza izango da gaikuntza lortzeko eta Euskadiko Turismo Giden Erregistroan inskribatzeko, hargatik eragotzi gabe erregelamenduz ezar daitezkeen prestakuntza eguneratzeko betebeharrak.

4.- Turismo-gidarietzako gaikuntza-probak egin ahal izateko dagokion tasa ordaindu beharko da.

Laugarren artikulua. Euskadiko turismo-gidariaren jarduerari buruzko Martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuari 6 bis artikulua gehitzea.

6 bis artikulua gehitzen da, eta honako idazkera izango du:

6 bis artikulua. Ebaluazio Batzordearen osaera eta eginkizunak.

1.- Turismo-arloan eskumena duen zuzendaritzari atxikita egongo da Euskadiko turismo-gidarien gaikuntza-probak antolatu, egin eta baloratzeko ardura duen ebaluazio-batzordea.

2.- Honako hauek izango dira balorazio-batzordeko kide:

a) Lehendakaritza, turismo-arloan eskumena duen zuzendaritzari atxikitako A1 taldeko funtzionarioen artean izendatua.

b) 2 bokal; horien artean unibertsitateko irakasleak edo Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten turismo-gidarien elkarteetako kideak egon ahal izango dira, guztiak ere proben xede diren gaietan espezialistak.

c) Idazkaria, Zuzendaritza bereko goi mailako tituludun funtzionarioen artean aukeratua.

3.- Ebaluazio Batzordeko kideek indarrean dagoen araudiaren arabera jasoko dituzte dagozkien kalte-ordainak.

4. Ebaluazio-batzordeak laguntzaileak eduki ahal izango ditu administrazio- eta zaintza-lanak kudeatzeko ariketak egiten diren bitartean. Langile horiek zerbitzuagatik dagozkien haborokinak jasotzeko eskubidea izango dute, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

5. Balorazio-batzordearen ebazpenen eta izapide-egintzen aurka, azken horiek gaiaren funtsa erabakitzen badute zuzenean edo zeharka, prozedurak jarraitu ezina eragiten badute,



defentsa-gabezia edo eskubide eta interes legitimoen kalte konponezina sortzen badute, interesdunek aukera izango dute gora jotzeko errekurtoa eta aukerako berraztertze-errekurtoa aurkezteko.

Bosgarren artikulua. Euskadiko turismo-gidarien jarduerari buruzko Martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren 7. artikulua aldatzea.

Aldatu egingo da Euskadiko turismo-gidarien jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren 7. artikulua, eta honako idazkera izango du:

1.– Interesdunek lanbide-gaitasuneko eskakizun hauetakoren bat bete behar dute:

a) Titulu hauetako bat izatea:

1. Turismoko diploma- edo gradu-titulua.

2. Turismo Gidaritzako, Informazioko eta Laguntzako goi-mailako teknikaria edo haren baliokidea.

3. Turismo Enpresa eta Jardueretan diploma-titulua.

4. Lizentzia- edo gradu-titulua Historian, Arkeologian, Arte Ederretan, Artean, Artearen Historian, Arkitekturaren edo Arkitekturaren Oinarrietan.

5. Kultura-ondare historiko-arkitektonikoa helburu duten graduondoko ikasketa ofizialak (masterra).

b) Otsailaren 22ko 149/2022 Errege Dekretuan aurreikusitako «Turismo-gidaritza» (HOT335_3) lanbide-kualifikazioaren profesionaltasun-ziurtagiria izatea. Errege-dekretu horren bidez, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalean jasotako Jarduera Fisikoak eta Kirolak, Nekazaritza, Energia eta Ura, eta Ostalaritza eta Turismoa lanbide-arloetako lanbide-kualifikazio jakin batzuk eguneratzen dira.

2.– Lanbide-konpetentziak egiaztatutzat emango zaizkie aurreko 1.a) apartatuan aipatu ez diren goi-mailako tituludun ofizialei, lizentziadunei edo diplomadunei, baldin eta, horretaz gain, «Turismo-gidaritza» (HOT335_3) lanbide-kualifikazioaren honako konpetentzia-atal hau egiaztatzen badute:

1) UC1069_3 Turista eta bisitarientzat jardun-eremuko ondarea eta kultura-intereseko ondasunak interpretatzea.

2) UC1071_3 Turistei eta bisitariei konpainia- eta laguntza-zerbitzuak ematea eta ibilbide turistikoak diseinatzea.

3) UC2579_3: hiri-inguruneetan, kultura-intereseko ondasunak eta ondarea ezagutzeko jardueretan turistei gidaritza-, konpainia- eta laguntza-zerbitzuak ematea.

Seigarren artikulua. Euskadiko turismo-gidariaren jarduerari buruzko Martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren 8. Artikuluaren 1. atala aldatzea.

Aldatu egingo da Euskadiko turismo-gidarien jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren 8. artikuluen 1. atala, eta honako idazkera izango du:



Interesdunek gaikuntza lortu nahi duten hizkuntzen jakintza egiaztatu beharko dute, Europako Kontseiluaren Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 mailan edo goragoko maila batean.

Hurrengo ataletan aurreikusi ez denari dagokionez, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera aitortutako ziurtagirien zerrendetan dauden erakunde publiko edo pribatuek emandako ziurtagiriak onartuko dira.

Zazpigarren artikulua. Euskadiko turismo-gidariaren jarduerari buruzko Martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren 10. artikulua aldatzea.

Aldatu egingo da Euskadiko turismo-gidarien jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren 10. artikulua, eta honako idazkera izango du:

10. artikulua. Jarduera gauzatzea.

1.– Beste autonomia-erkidego batzuetan gaitutako turismo-gidariak aldi baterako edo modu iraunkorrean jardun ahal izango dute Euskadiko kultura-ondareko elementuetan.

Dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera bat aldi baterakotzat joko da baldin eta ez badu ematen zerbitzuan ondoz ondoko hogeita hamar egun baino gehiago, edo, hamabi hileko aldian, guztira, aldizkako hirurogei egun baino gehiago.

2.– Jarduera EAEn gauzatzeko, beste autonomia-erkidego batzuetan gaitutako gidariak aurretiazko jakinarazpen bat aurkeztu beharko dute jarduera aldi baterakoa denean, edo erantzukizunpeko adierazpen bat jarduera iraunkorra denean.

3.- Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatzeko, jardueraren jardun iraunkorrari dagokion erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

4. Turismo-arloan eskumena duen zuzendaritzak egiaztatu ahal izango du, koordinazio administratiboko mekanismoen bidez, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezten duten pertsonak turismo-gidari gisa gaituta daudela eta gaikuntza hori lortu zuten autonomia-erkidegoan eskatutako baldintzak betetzen dituztela.

Zortzigarren artikulua. Euskadiko turismo-gidariaren jarduerari buruzko Martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren 11. artikulua ezabatzea.

Bederatzigarren artikulua. Euskadiko turismo-gidariaren jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 DEKRETUAREN 13. artikulua aldatzea.

Aldatu egingo da Euskadiko turismo-gidarien jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren 13. artikulua, eta honako idazkera izango du:

13. artikulua. Kokatzeko askatasuna

1.– Gaikuntza duten turismo-gidarien jardueran hasi eta jardun ahal izateko baimena emango zaie, dekretu honetan araututako baldintza beretan, hala eskatzen duten pertsonen, Ekainaren 9ko 581/2017 Errege Dekretuaren III. tituluaren edo hura ordezkatzeko duen arauaren ezarritako kasuetan eta eskakizunekin. 581/2017 Errege Dekretu honen bidez, batetik, Espainiako ordenamendu juridikoan sartu zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/55/EB Zuzentaraua, Lanbide-kualifikazioak aitortzeari buruzkoa, eta bestetik, 1024/2012



Erregelamendua (EB), Barne Merkatuaren Informazio Sistemaren bidez administrazioko lankidetzara emateari buruzkoa (BMI Erregelamendua).

2.– Eskabideek ekainaren 9ko 581/2017 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute, eta Eusko Jaurlaritzan turismo-arloko eskumena duen zuzendaritzak ebatziko ditu.

3. – Prozeduran, beharrezkoa denean, Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren (EEI) edo beste erakunde eskudun batzuen txostena eskatu ahal izango da, kualifikazioak, lanbide-konpetentziak, esperientzia egiaztagarria edo eskatzaileak aurkeztutako prestakuntzaren egokitasuna egiaztatzeko.

4.– Ebazpena eman eta jakinarazteko epea hiru hilekoa izango da, eskabidea Eusko Jaurlaritzan turismo-arloko eskumena duen zuzendaritzaren erregistro elektronikoan sartzen denetik aurrera.

5.– Ebazpena ez bada epe horretan jakinarazten, baietsizat hartuko da administrazio-isiltasunaren ondorioz.

Hamargarren artikulua. Euskadiko turismo-gidariaren jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 DEKRETUAREN 15. artikulua aldatzea.

Aldatu egingo da Euskadiko turismo-gidarien jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren 15. artikulua, eta honako idazkera izango du:

15. artikulua. Gaikuntza galtzea.

1.– Gaikuntzek ondorioak izateari utziko diote kasu hauetan:

a) Titularrak uko eginez gero, Eusko Jaurlaritzan turismo-arloko eskumena duen zuzendaritzari egindako komunikazio baten bidez.

b) Erantzukizunpeko deklarazioaren edo komunikazioaren ondoriozko jarduera-aldia igaroz gero, beste autonomia-erkidego batzuetan jarduteko gaikuntza duten gidarien kasuan edo Europar Batasuneko beste estatu kide batean kokatuta dauden turismo-gidarien kasuan, baldin eta dekretu honen arabera inskribatuta badaude.

c) Gaikuntza galdu dela deklaratzeko duen administrazio-ebazpena, honako arrazoi hauengatik: ezeztatzea, heriotza, gerora sortutako ezintasuna edo legez aurreikusitako beste edozein arrazoi.

d) Gaikuntza galtzea dakarren zehapen irmo bat ezartzeagatik, aplikatu beharreko zehapen-arabidearen arabera.

Aurreko apartatuko a) eta b) letren kasuetan, bertatik bertara galduko da gaikuntza, komunikazioa jaso bezain laster edo aipatutako epea igaro ondoren, hurrenez hurren.

3.– Ondorio-galera turismo-arloko arau-hauste baten ondoriozkoa bada, aplikatu beharreko zehapen-prozedura arautzen duten arauak xedatutakoa bete beharko da. Gainerako kasuetan, heriotzaren ondoriozkoan izan ezik, ezeztatzeko prozedura ofizios hasiko da, eta Eusko Jaurlaritzan turismo-arloko eskumena duen zuzendaritzak emango du ondorio-galera deklaratzeko ebazpena, aldeztutako gaikuntzaren titularrari entzuteko izapidea eginda. Hiru hilekoa izango da ebazpena eman eta jakinarazteko epea, prozedura hasteko erabakia hartzen denetik aurrera.



4. – Gaikuntza galduz gero, ezereztu egingo da interesdunak Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan duen inskripzioa, eta ezingo da jardueran horretan aritu.

Hamaikagarren artikulua. Euskadiko turismo-gidariaren jarduerari buruzko Martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren 16. artikulua 1. atala aldatzea.

Aldatu egingo da Euskadiko turismo-gidarien jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren 16. artikulua 1. atala, eta honako idazkera izango du:

16. artikulua. Turismo-gidarien inskripzioa.

1. – Turismo-enpresen eta -jardueren erregistroan inskribatu egingo dira euskal kultura-ondareko ondasunen barruan jarduteko gaitutako turismo-gidariak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.